




KANALAK

> Komunikazio-kanalak

Gure bezeroekin komunikatu ahal izateko web orri bat sortu dugu, non informazio guztia dagoen. Saltzen ditugun produktuak ematen ditugu, gure bezeroak gurekin komunikatu daitezkeen bezala (gmail, telefono eta instagram bidez).

Adinekoenak, beharbada, teknologia berrietara ohituta ez daudela pentsatu dugu, eta, horregatik, bezeroari arreta zuzena emateko aukera ematen diegu, gure telefono-zenbakia erabiliz; deiak egitera ohituagoak egon daitezkelako, gmail bat bidaltzera baino.



Baina, bestalde, gaur egungo gazteek nahiago dute idatziz komunikatu, eta horrezegatik aukera ematen diegu mezu elektronikoko bat bidaltzeko edo zuzenean gure instagram kontura idazteko.

Gure promozio edo zozketa eskusibo berriak ikusi ahal izateko, iragarkiak jarriko ditugu platadforma berrietan, Tik Tok edo instagram kasu. Tik Tok kontu bat dugu, eta hor ez ditugu soilik eskaintzak sustatzen edo iragartzen, baizik eta gure jantziak sortzeak dakarren prozesua ere irakasten dugu.



Gure bezeroekin komunikazioa mantentzeko eta haien galderak argitzeko Gmail bat zabaldu dugu (desingup27@gmail.com). Gmail honen bitartez, produktuen edo salmente galderak erantzungo diegu. Era berean, proodukturen bat erosiz gero haien erosketaren informazioa eta logistika enpresaren oharrak bidaliko diegu gmail honen bidez. Telefono zenbaki bat ere zabalduko dugu, gmail plataformarekin ondo moldatzen ez direnentzako, eta gmail problemak ematen baditu, gure bezeroekin kominikatzio beste kanal bat izateko.





➤ Salmenta- eta banaketa- kanalak

Web orrian erosi daitezke produktuak momentuz eta denda fisikoa irekitzeko prest gaudenean, bertan ere enkarguak egin ahal izango dira. Eta gero garraiolarien bitartez banaketa egingo da. Web orri berean ordaintza modu ezberdinak emango ditugu. Gaur egun oso ohikoa da online ordaintzea, paypal, bizum, ApplePay...

Hala eta guztiz ere, entrega akordatutako lekura iritsitakoan ordaintzeko aukera emango dugu, txartel bidez edo eskudirutan, teknologia berri horrekin biltzen ez den jendeari erraztasunak emateko. Eskudirutan ordaintzen dutenek, ordaindu behar dutena esan beharko dute, eskaera egiterakoan aldaketa bidezkoa izan dadin.

Entrega guztiak Ako Pako Transports (APT) logistika enpresarekin egingo dugu.

